

Fundazioa

Euskaldunon Egunkaria, 1996-12-01: 3.

Osorik esateko, Fundazio Filantropikoa aipatu behar genuke propioki. Hau dator geuk hobeto ezagutzen dugun iparramerikar tradiziotik: gobernukoa ez dena, irabaziak emateko jartzen ez dena eta sozialki ongarri izango den zerbaitetarako jarria izan dena. Baina orain zentzu berri batekin. Euskaldunok jarri izan dugu dirua modu honetan, egia da; herrietan izan ditugu, askotan Eliza medio, eskola edo ospitaleko laguntzak emateko jarriak. Gaur zentzu hau da, beharbada, aldatu dena. Gaur gure artean notizia egin duen *Euskalgintza* eta *Elkarlana*-k adierazten duen proiektu nazionala da. Garaiak aldatu egin dira, ikasbide hau, Joseba Jakarena, berria da gure artean! Berria da, ez bakarrik berak bere taldeko ondasun guztiak proiektu kultural nazional batean jarri nahi izan dituelako, batez ere bere izenik markatu gabe, Marketing berria!, egin duelako. Joseba lanean eta portaeran ezagutu dugunok ez gara harritu. Berarekin, ni bezala, EGUNKARIA egiten aritu garenok, ezaguna genuen bere askatze osoa. Gure herrian izan ditugu filantropia bideko laguntzak, baina ez hainbeste, nik uste, bereziki euskalgintzak eskaintzen duen fundazio nazionala proposatzen duen elkarlanaren sistema, eta hau dena izen jakinen mende jarri gabe.